

Royal Societyk iraultza zientifikoaren sekretuak interneten jarri ditu

2011/10/28

Royal Societyk, munduko erakunde zientifikorik zaharrena, zibernautei bere **artxibo** historikoa ireki die. Historioaren norabidea aldatu zuten milaka ikerketak, Newtonen edo Darwinek egindakoak, alegia.

Interesadun guztiek 60.000 dokumentu baino gehiago kontsultatzeko aukera izango dute. Artxiboak orain dela 70 urte baino lehenago argitaratuak izan diren dokumentuak (1940 baino aurrekoak) dohain eta testu osoz eskainiko ditu, lehenengo *Peer review* aldizkari zientifikoak barne.

